

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAIKUNTZA ETA ERAISKETETAKO HONDAKINEN INBENTARIOA 2016

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Edizioa: 2018ko apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
www.euskadi.eus

Argitaraldia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia/San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Edukia: dokumentu hau L&A Asociados enpresak egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailerako

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	KONTZEPTU-ESPARRUA	5
3	DATUEN AZTERKETA	9
3.1	Hondakinen sorrera	9
3.1	Hondakinen kudeaketa	13
4	DATUEN BILAKAERA	16
4.1	Sorkuntza	16
4.2	Kudeaketa	17
5	HELBURUAK BETETZEA	19
5.1	Murrizketaren helburua	19
5.2	Birziklatzeko helburuak	20
5.2.1	Birziklatzea, EAEko metodo propioaren arabera	20
5.2.2	Birziklatzea, Europako metodoaren arabera	20

1 SARRERA

Dokumentu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzako eta Eraisketetako Hondakinen 2016ko Inbentarioa jasotzen du.

112/2012 Dekretuaren¹ arabera, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak honela definitzen dira: eraikuntza- eta eraispen-lanetan sortzen den eta hondakinak arautzeko araudian «hondakina»² zehazteko ematen den definizioarekin bat datorren edozein substantzia edo objektu. Horrenbestez, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak zera izango dira, eraikitze edo eraisteko obra batean sortzen den edozer substantzia edo objektu, baldin eta erabiltzaileak bota egin baditu edo bota egin behar baditu.

Horrenbestez, inbentario honen barruan sartuko dira honako jatorri hauek dituzten hondakinak:

- obra nagusirako lizentzia duten obrak (oin berrikoa, errehabilitazioa edo eraisketa);
- obra zibilak (garraioak, hidraulikoak, ingurumena eta urbanizazioa);
- obra txikiak.

2010eko datuen arabera, Eraikuntzako eta Eraisketetako Hondakinak EAEn sortzen diren hondakinen % 22 dira. Hortaz, kuantitatiboki hondakin-korronterik garrantzitsuena dela esan dezakegu, eta horrek neurriak eskatzen ditu hondakinok murrizteko eta birziklatzeko.

- Murrizteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planak hondakinok % 5 murrizteko helburua ezartzen du, konparazioa egiteko 2010eko datuak oinarri hartuta.
- Birziklatzarekin lotuta, berriz, 2008/98 Zuzentarauak estatu kideak derrigortzen ditu beharrezko neurriak ezartzera, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen % 70 birzikla daitezen 2020rako. Erdibideko helburu gisa, Euskal

¹112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa.

² «Hondakina»: eraikitze edo eraisteko obra batean sortzen den edozer substantzia edo objektu, baldin eta erabiltzaileak bota egin baditu edo bota egin behar baditu (22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa; 3.a artikulua).

Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak 2016rako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak %60 murriztea aurreikusten du.

Hondakinok egokiro kudeatzen direla bermatzeko, 112/2012 Dekretuaren 7. artikulua honako obligazio hau ezartzen die eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak dituzten pertsonari, baldin eta ez badituzte tokian bertan baliatu behar edota obran bertan balorizazio bidez kudeatu behar: hondakinak kudeatzen dituen pertsona bati entregatzea, ahal dela, berrerabiltzeko, birziklatzeko edota bestelako balorizazio moduetara bideratzeko (ordena horretan).

2 KONTZEPTU-ESPARRUA

Eraikuntzako eta eraisketako obraren kontzeptuak, inbentario honen xedeetarako, honako jarduera hauek biltzen ditu:

- obra handiko lizentzia dute eraikuntza-obrak;
 - obra berria (aldez aurretik eraisketa izan duena edo halakorik gabea);
 - birgaitzea (eraispen partzialekin edo gabe);
 - eraisketa hutsa.
- Obra zibila:
 - garraioak (errepideak, trenbide-azpiegiturak eta portuak);
 - azpiegitura hidraulikoak;
 - ingurumena;
 - urbanizazioa.
- Obra txikiak (etxeetako konponketak).

Obra horietan sortutako hondakin guztiak eraikuntzako eta eraisketako hondakin gisa hartuko dira. Hondakin horiek honako multzo handi hauetan sailkatuko genituzke.

- Harri-hondakinak (hormigoia, adreiluak, teilak eta material zeramikoak). Egokiro bereizita eta prozesatuta, hondakinok birziklatzea posible da, agregakin birziklatu izenez ezagutzen duguna eskuratzeko.
- Hondakin balorizagarriak (batez ere egurra, papera-kartoia, metala eta plastikoa). Hondakin horiek birziklatu egin daitezke, berriro ere merkaturatzeko eta haiekin bestelako hainbat produktu sortzeko.
- Hondakin ez-balorizagarriak. Hondakin horien jomuga posible bakarra deuseztatzea izaten da, eskuarki zabortegetan, ez baita posible birziklatzea.
- Hondakin arriskutsuak. Erabilitako olioak, disolbatzaileak eta arriskugarritasun-ezaugarriak dituzten bestelako hondakinak (sukorrak, toxikoak eta abar).

Eraikuntzako eta eraisketetako hondakin izango dira, halaber, indusketetan eta lur-mugimenduetan sortzen diren harriak eta lurrak ere (baldin eta ez badira erabiltzen obran bertan), baina, hondakinok izan ohi duten bolumen handia dela eta, bereizita kontabilizatuko dira, inbentarioaren kopuruak ez itxuragabetzeko.

Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinon guztion fluxuan, obratik azken trataerara arte, hainbat eragilek esku hartzen dute.

- Ekoizlea: figura horren lege-definizioa³ konplexu samarra baldin bada ere, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinaren ekoizlea obra baten sustatzailea izan ohi da.
- Edukitzailea: termino soiletan, enpresak izan ohi dira (kontratatistak edo azpikontratatistak), edota obran diharduten langile autonomoak.

Gehien-gehienetan, hondakinaren ekoizlea ez da izaten hondakina fisikoki sortzen duena, baizik eta lanak egitean (indusketak, zimenduak, alikatatzea eta abar) materialen hondakinak eta soberakinak (hormigoia, adreiluak, plastikoa...) sortzen dituen edukitzailea.

Ondorioz, edukitzaile horixe da hondakinari norabide egokia topatzeko arduraduna. Eskuarki, haren obligazioa zera izaten da, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak

³Ekoizlea: eraikuntza- edo eraispen-lan batean hirigintza-lizentziaren pertsona fisiko edo juridiko titularra; hirigintza-lizentziarik behar ez duten obretan, eraikuntza- edo eraispen-lana egingo den higiezinaren pertsona fisiko edo juridiko titularra hartuko da hondakinaren ekoizletzat.

kudeatzaile baten esku ipintzea; hau da, administrazioak baimendutako enpresa bati ematea, hondakinok trata ditzan.


Hainbat eratako kudeatzaileak ditugu.

- Oinplano finkoa: industriako instalazio finkoak, horretarako gaitutako toki batean kokatuak (iragazgaitz egindako oinarriak, ur-hartuneak eta abar). Obra-hondakin garbiak hartzeko gauza dira (hormigoia, teilak, adreiluak eta zeramikazko bestelako materialak), baita zikinak ere (aurreko hondakinak, igeltsuarekin, egurrarekin, plastikoarekin eta abarrekin nahasiak). Hondakinak bereizi eta prozesatu ostean, honako hauek lortzen dira.
 - Agregakin birziklatua, hormigoi edo material zeramiko birrindua, eraikuntzako material gisa baliatu daitekeena.
 - Bestelako material birziklagarriak, eskuarki metala, egurra, plastikoa eta paper-kartoia, ondoren beste kudeatzaile batzuetara bidaltzen direnak birziklatzeko (balorizatzaileak).
 - Bazterkinak, hondakin ez-balorizagarriak, zabortegira bidaltzen direnak deuseztatzeko.
- Oinplano mugikorak: makina zapaltzaileak, obraraino gerturatzen dira hondakin garbiak birrintzera eta, hala, agregakin birziklatua lortzera, bertan edo beste obra batean erabiltzeko. Hondakinak planta mota horretan tratatu ahal izateko, ezinbestekoa da aldeztatik bereiztea, hondakin birziklagarriak balorizagailura bidalita eta ez-balorizagarriak, berriz, zabortegira.
- Balorizagailuak: industria-instalazio iraunkorrak, hondakin birziklagarriak tratatzera bideratuak, hala nola egurra, metala, plastikoa, paper-kartoia eta abar. Instalazio horiek zuzenean jasotzen dituzte hondakinak obratik, baita planta finkoetatik ere.
- Zaborteak: hondakinak deuseztatzera bideratutako azpiegiturak, lurzorua gainean modu iraunkorrean gordeta.
- Hondakin arriskutsuen kudeatzaileak: industria-instalazio baimenduak hondakin arriskutsuak tratatzeko (hondakin horiek tankera horretako plantetara bakarrik bidali ahal izango dira).

Horrez gain, bestelako erdibideko bi kudeatzaile mota ere izango dira.

- Bilketa-enpresak: eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak obretatik erretiratzeko zerbitzua eskaintzen dute, baimendutako kudeatzaile batengana eramateko (planta finkoa, balorizagailua edo zabortegia).
- Saillapen-plantak: instalazio finkoak dira, eta eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak jasotzera eta korronte mota desberdinak bereiztera (metala, plastikoa, hormigoia...) bakarrik dedikatzen dira, ondoren, hondakin mota bakoitza dagokion kudeatzailearengana helarazteko (planta finkoa, balorizagailua edo zabortegia).


Hondakinon fluxuan inplikaturako agenteak ugari dira, eta sarritan euren artean entrega gurutzatuak ere egiten dituzte; hala, zailtasun berezia eragiten du horrek guztiak eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen inbentarioa egiteko garaian.



3 DATUEN AZTERKETA

3.1 Hondakinen sorrera⁴

2016an, Euskal Autonomia Erkidegoan 1.261.661,46 tona eraikuntzako eta eraisketetako hondakin sortu ziren; horietatik 23.679,59 tona hondakin arriskutsuak izan ziren (% 1,88), eta gainerako 1.237.981,87 tonak (% 98,12%), berriz, hondakin ez-arriskutsutzat hartzen dira. Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen sorreraren banakapena, obra motaren arabera, honako hau da.



Honako taula honetan, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen banakapen handiagoa ageri da, obra tipologiaren arabera.

⁴Inbentario honetako tauletako eragiketetan (baturak eta ehunekoak) egon litezkeen akats aritmetikoak erabaki baten ondorio dira; izan ere, batugaietako hamartar guztiak batu ditugu, batzuetan hamartar guztiak ikusi ez arren. Horrela, eragiketaren emaitza ez da murriztuko, batugai bakoitza biribildu arren.




Jarduera / Obra mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
I. LIZENTZIA BEHAR DUTEN OBRAK				
A. Bizitegitarako ez den erabilera				
1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.911,54	252,04	378,06	13.541,65
2. Industria	24.124,66	38.642,08	13.594,65	76.361,39
3. Zerbitzuak	34.064,71	24.670,10	37.656,29	96.391,09
Bizitegitarako ez den erabilera, orotara	71.100,91	63.564,22	51.629,00	186.294,13
B. Bizitoki-erabilera	113.841,82	278.782,58	257.744,60	650.369,00
C. Erabateko eraispena soilik	3.495,62	5.295,83	3.161,70	11.953,15
LIZENTZIA BEHAR DUTEN OBRAK OROTARA	188.438,34	347.642,63	312.535,30	848.616,27
II. OBRA ZIBILA				
A. Garraioa	17.208,95	53.893,71	28.617,73	99.720,39
B. Urbanizazioa	26.384,88	83.558,32	92.674,90	202.618,10
C. Hidraulikoak	2.350,26	4.287,03	1.668,24	8.305,54
D. Ingurumena	282,89	4.570,15	2.448,47	7.301,50
OBRA ZIBILA, OROTARA	46.226,99	146.309,21	125.409,33	317.945,53
III. OBRA TXIKIA				
Obra txikia	3.758,43	76.778,00	14.563,22	95.099,65
OBRA TXIKIA, OROTARA	3.758,43	76.778,00	14.563,22	95.099,65
ERAIKUNTZAKO ETA ERAISKETETAKO HONDAKINAK, OROTARA	238.423,76	570.729,84	452.507,85	1.261.661,46

Hondakin gehiena honako obra hauetan sortzen da

Obra mota	Sortutako kopurua (tonak)	Guztizkoarekiko portzentajea (%)
Bizitegitarako	650.369,00	51,55
Urbanizazioa	202.618,10	16,06
Garraioak	99.720,39	7,90
Zerbitzuak	96.391,09	7,64
Obra txikia	95.099,65	7,54
Industria eta energia	76.361,39	6,05

Gainerako sektoreak % 3,26 baino ez dira, guztira 41.101,84 tona baitira.


Grafikoki, honela banakatzen da:



Hauek dira gehien sortzen diren hondakinak:

HEZ	Azalpena	Tonak	Gutizkoaren %
170101	Hormigoia	317.560,34	% 25,17
170103	Zeramika	237.108,30	% 18,79
170405	Burdina eta altzairua	220.754,41	% 17,50
170302	Nahasketa bituminosak	113.948,39	% 9,03
170202	Beira	113.055,39	% 8,96
170904	Nahasketak	63.248,14	% 5,01
170102	Adreiluak	58.346,85	% 4,62
170201	Egurra	33.243,11	% 2,63
Bestelakoak	Arriskutsuak	23.679,59	% 1,88
200301	Hiri-hondakinen nahasketak	15.893,85	% 1,26
200101	Papera eta kartoia	13.814,09	% 1,09
170107	Hormigoia eta zeramikaren nahasteak	13.762,50	% 1,09
170203	Plastikoa	12.884,89	% 1,02
170407	Nahastutako metalak	12.025,33	% 0,95
170802	Igeltuzko eraikuntza-materialak	6.255,29	% 0,50
Bestelakoak	Bestelako hondakinak	6.080,99	% 0,48

Grafikoki, honako hau da banaketa:



3.1 Hondakinen kudeaketa

2016an, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak balorizatzeko plantetara guztira 832.732,91 tona hondakin bidali ziren; hau da, sortutako guztizkoaren % 66,00 (kutsatu gabeko lurrak eta harriak albo batera utzita). 2015ean ere ehunekoa oso antzekoa izan zen (% 67,03).

Planta mota	Kopurua (t)	Sortutako guztizkoaren gaineko ehunekoa
Planta finkoak	523.014,42	% 41,45
Planta mugikorrek	126.166,15	% 10,00
Beste balorizagailu batzuk	183.552,34	% 14,55
Hondakin arriskutsuak	0	% 0,00
Guztira	832.732,91	% 66,00

Sarrera gehienak birziklatze-plantetan izaten dira, 523.014,42 t (% 41,45). Planta mugikorretan tratatutako hondakinen estimazioa 126.166,15 t (% 10) da, eta hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko beste bitartekoek, berriz, 183.552,34 t (% 14,55) tratatu dituzte.

2015eko datuekin alderatuta, planta finkoetako sarreretan murrizketak izan dira (% 45,5etik % 41,45era) eta balorizatzeko bitartekoak ugaritu egin dira (% 11,56tik % 14,55era); horren arrazoia zera da, 2016an tankera horretako hainbat kudeatzeko gailuren erabilera baimendu zela. Horrenbestez, planta finkoetatik balorizatzeko beste bitarteko batzuetara aldaketa gertatu da.

Tratatutako hondakin guztietatik, guztiak ez dira birziklatuak. Hondakinak tratatzean, baztertzek egiten dira; hau da, birziklatu ezin daitezkeen hondakinak bereizi egiten dira. Alboratutako hondakin horiek erretiratuta, egiazko birziklatzea honako hau litzateke:

Planta mota	Birziklatze efektiboa (t)	Sortutako guztizkoaren gaineko ehunekoa
Instalazio finkoa	531.238,46	% 42,11
Instalazio mugikorra	126.166,15	% 10
Beste balorizagailu batzuk	120.711,88	% 12,35
Hondakin arriskutsuak	0	% 0,00
GUZTIRA	778.116,48	% 61,67


2013an, birziklatze efektiboaren tasa % 53,7 izan zen, eta harrezkero % 59,4ra iritsi zen 2015ean. 2016an, berriz, % 61,67ra, guztia ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020 Planean aurreikusitako helburuak betez.

Hondakinak erretiratzeari dagokionez, birziklatzeko eta balorizatzeko plantek sortutako hondakinak (bazterkinak) jasotzen dituzte zabortegiek, baita ekoizleek eta edukitzaileek zuzenean zein zeharka helarazten dituztenak ere (edukitzaileen enpresen bidez edo erdibideko kudeatzaileen bidez).

Guztira 155.375,07 tona hondakin (% 12,32) deuseztatu zen, eta isurien tasa 2013an % 15 izatetik 2015ean % 18,61 izatera igaro zen. Datu positiboa da hori, nahiz eta, bestalde, balitekeen horren arrazoia zera izatea, kontrolatu gabeko kudeaketaren nolabaiteko hazkundera.

Hain zuzen, sortutako kopuruen eta kudeatuen arteko aldeak 328.169,91 tona ematen ditu (% 26,01) eta haien norakoaren berririk ez dago. Ehuneko hori 2013an baino apalagoa da (% 31,60), baina 2015ean baino handiagoa (% 22,0).

Hala eta guztiz ere, 2016an sortutako eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen EAEko azken jomuga honako grafiko honetan ageri da.






Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen azken jomuga xehatua ondoren dago aurkeztuta.

Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen azken kudeaketa EAEn (2016)		
Kudeaketa	Kopurua (t)	%
Birziklatzea	778.116,48	% 47,64
<i>Instalazio finkoa</i>	531.238,46	% 42,11
<i>Instalazio mugikorra</i>	126.166,15	% 10,00
<i>Beste kudeatzaile batzuk</i>	120.711,88	% 9,57
Deuseztatzea	155.375,07	% 12,32
<i>Beste kudeatzaile batzuk</i>	116.116,75	% 9,20
<i>Zabortegiak</i>	4.123,37	% 0,33
<i>Hondakin arriskutsuak</i>	35.134,95	% 2,78
Kudeaketa ezezaguna	328.169,91	% 26,01
Guztira	1.261.661,46	% 100

4 DATUEN BILAKAERA

4.1 Sorkuntza

EAEko Eraikuntzako eta Eraisketetako Hondakinen sorkuntza honako grafiko honetan dago jasota.



Krisiaren eraginak esanguratsua izaten jarraitzen du eraikuntzaren sektorean; izan ere, 2016an sortutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen kopuruak (1.261.661 t) apalagoa izaten jarraitzen du 2009koak baino (1.382.314 t). Nolanahi ere, datuek joera aldaketa erakusten dute: 2016an % 25 gehiago sortu zen 2015ean baino (248.350 t gehiago, alegia).

Hondakinen sorkuntza handitu izana azaltzeko, bi inguruabar hartu behar dira kontuan.

- Lehenik eta behin, euskal eraikuntza-sektorearen jarduera handiagoa, sektorearen balio erantsia 2016an intentsitate esanguratsuz handitu baitzen. Sektorearen balio erantsia % 1,6 handitu zen 2016an, eta horrek esan nahi du 2015eko hazkunde-maila hirukoiztu egin zela (% 0,5) zortzi urtez jarraian erori ostean.
- Bigarrenik, birgaitze-obrek hazkunde handia izan dute, eta, zehazkiago, eraisketa partzialeko birgaitzeko obrek; horiek oin berriko obrek baino hondakin gehiago sortzen dituzte.

Hurrengo taulan dago jasota bilakaera hori, obra motaren arabera.

	2013	2015	2016
Obra nagusiko lizentzien kopurua	2.172	2.748	3.153
Lizentzia kopurua (birgaitzeak, eraisketa partzialarekin)	252	269	533
Lizentzien ehunekoa (birgaitzeak, eraisketa partzialarekin)	% 11,6	% 9,7	% 16,9
	0	9	0


Elementu horrek, zati batean behintzat, azaltzen du birgaitze-lanak ugaritu izanaren arrazoia zera dela, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoetatik eratorritako obrak⁵. 2017ko urtarrilera bitartean, EAE osoan 8.238 ikuskaritza tekniko erregistratu ziren. Kasuen erdietan (4.444 ikuskaritza, guztietatik % 53,7), teknikariek ebatzi zuten premiaz zegoela egin beharra (urtebete baino lehenago) birgaitze-obraren bat.

4.2 Kudeaketa

Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen jomugari dagokionez, honako hau da bilakaera.

⁵ Maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuaren arabera, 2018ko ekainaren 27ra arteko epea izango dute bizitegi-erabilerako eraikinek, baldin eta 2017ko ekainaren 27an 50 urte baino gehiago bazituzten, nola eta, data horretan, ikuskaritza eginda eta indarrean ez daukaten.

Bizitegi-erabilerako eraikinek, 2017ko ekainaren 28tik aurrera 50 urte beteko dituztenek eta data horretatik aurrera katalogatutako eraikinek ikuskaritza teknikoa urtebetean egin beharko dute, eraikinen antzinakotasun hori betetzen duenetik aurrera (bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kasuetan), edota katalogatzen duten unetik aurrera (katalogatutako etxeen kasuan).



2015eko datuekin alderatuta, inbentarioaren datu positiboak ageri dira.

- Birziklatze-data % 59,4tik % 61,67ra igo da.
- Zabortegian deuseztatzeko ehunekoa % 18,61etik % 12,32ra jaitsi da.

Dena dela, jomugaren arrastorik ez dugun hondakinen ehunekoa handitu egin da.



5 HELBURUAK BETETZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planak honako helburu hauek ezartzen ditu eraikuntzako eta eraisketetako hondakinei dagokienez (oinarri gisa 2010eko datuak hartuta).

- Sorkuntza murriztea, 2016rako % 5 eta 2020rako % 10.
- Eraikitze- eta eraiste-hondakinak birziklatzea, 2016rako % 60 eta 2020rako % 70 (HEZ 170504 izan ezik).

Horrez gain, Europar Batasuneko araudiak⁶ estatu kideei birziklatze-tasak 2020rako % 70era igotzeko eskatzen die, eta ehuneko hori lortzeko metodoa ere zehazten du⁷.

5.1 Murrizketaren helburua

2010ean sorkuntza-zenbatespena 1.200.000 tona eraikuntzako eta eraisketetako hondakin izan zen, 2016an ekoizpen hori 1.140.000 tonatara murriztu behar zen. 2015era bitarteko bilakaera (1.013.311 tona erregistratu ziren), aurreikusten zuen posible izango zela 2016 eta 2020rako helburuak lortzea.

Hala ere, 2016an 1.261.661 tona izan dira; horrek esan nahi du 2010eko datuekin alderatutako sorkuntza % 5,13 handitu dela. Horrenbestez, aurreikusitako helburua baino 121.661 tona gehiago sortu dira.

⁶ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren hondakinei buruzko Zuzentaraua (2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE), zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituena.

⁷ Batzordearen Erabakia, 2011ko azaroaren 18koa, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/98/EE Zuzentarauaren 11. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitako helburuen betearazpena egiaztatzeko kalkulu-arauak eta metodoak ezartzen dituena.

Hemendik 2020ra bitartean, zaila da prognosia egitea; edonola ere, birgaitzeko obrak ugaritu izanak zaildu egiten du aurreikusitako helburu hori betetzea.

Horiek horrela, 2017-2019 aldirako aurreikuspenen arabera, nabarmen handitu da EITak egin beharko dituzten eraikinen kopurua. 75.000 EIT egin beharko dira 2019ra arte, gehienak (% 91) 2018an.

5.2 Birziklatzeko helburuak

Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak birziklatzeari buruzko datuak bi modutan kontabilizatu dira.

- Lehenik eta behin, EAEn garatutako metodo propioa erabilia (aurreko urteetako eraikuntzako eta eraisketetako hondakin inbentarioetan baliatua), emaitza alderagarriak lortzeko helburuz. Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planeko helburuak metodo horrekin lortutako datuen bidez balioetsiko dira.
- Bigarrena, Europar Batasuneko araudiak eskatutakoarekin bat, 2008/98 Zuzentaraua zenbateraino betetzen den ebaluatzen.

5.2.1 Birziklatzea, EAEko metodo propioaren arabera

Azken urteetan, birziklatzeko tasan etengabeko hobekuntza ari da erregistratzen. Azken urterako % 61,67 kota lortuta, esan liteke 2016an lortu dela % 60ko birziklatze-tasa lortzeko helburua.

2020rako helburuak zail samarra dirudi, 4 ekitaldi geratzen baitira birziklatze-tasa % 61,67tik % 70ra igotzeko. Hala eta guztiz ere, bilakaera oso positiboa da. 2015 eta 2016 bitartean, birziklatzea 2,36 handitu da (% 59,31tik % 61,67ra) eta, joera horri eutsiz gero, helburutik gertu dagoen emaitza lortzea behintzat posible izango da (urtean 2,36 puntu hobetuta, 2020ko emaitza % 71,11 izango litzateke).

5.2.2 Birziklatzea, Europako metodoaren arabera

Metodologia horren bidez eskuratutako birziklatze-tasa handiagoa da. Hasiera batean, formula berbera erabiltzen da:



$$\text{Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak berreskuratzearen \%} = \frac{\text{Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinetatik berreskuratutako kopurua}}{\text{Sortutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen kopurua}}$$

Hala eta guztiz ere, Batzordearen erabakiaren arabera, ezinbestekoa da zenbakitzailea kalkulatzeko modua aldatzea (berreskuratutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak), baita izendatzailea ere (sortutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak).

Alde batetik, birziklatutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen kopurua apenas aldatzen den; 7,5 tona kentzea nahikoa da (hondakin jakin batetik datorrena, drainatze-lohiena, alegia, -17 05 06 HEZ kodea-).

Hala eta guztiz ere, Batzordearen Erabakiaren arabera kontabilizatutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen kopurua 49.894,07 tona txikiagoa da; izan ere, hainbat hondakin arriskutsu zenbatzeari uzten zaio, baita paper-kartoi hondakina, udal-hondakinak, bilgarriak eta abar ere.

Hartara, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen birziklatzea 2016rako % 64,21era murriztuko da, EAerako metodo propioarekin kalkulaturakoaren antzeko tasa, baina 2020rako aurreikusitako % 70eko helburutik gertuago dagoena.

2015 eta 2016 bitartean erregistratutako bideari eutsiz gero (tarte horretan birziklatzea % 2,05 handitu zen) eta hazkunde hori urtero 2020ra bitartean gertuz gero, % 72,42ko birziklatze-tasa lortuko litzateke. Horrenbestez, badira arrazoiak pentsatzeko posible dela Erkidegoko helburua betetzea.